

INSTAGRAM VS. OHIKO ARGAZKILARITZA

Eztabaida honek ez dauka filtrorik

Iluntze eder xamarra topatzen dugun aldiro mugikorra atera, argazkia egin, eta hainbat moldaketarekin txukundu ondoren azken emaitza Instagram eta antzeko sare sozialetan argitaratzen dugunak gero eta gehiago gara. Argazkiari “atsegin dut” andana baino gehiago eskatzen dioten sei profesionali halako plataformen bertute eta ajeen inguruan galdegin diegu.

| LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA |



MUGIKORRA beti soinean dugunok telefonoa ez ezik, kamera, argazkiak fintzeko tresna eta irudiak mundura zabaltzeko erakusleioa ere gurekin daramatzagu. Smartphone-ak eta sare sozialak. Ez dira kontu berriak dagoeneko. Astindu ederra eman diote edonolako edukiak sortu eta zabaltzeko moduari, eta argazkigintza ere ez da gailuon eraginetik libre geratu. Filtroak eta argazkiak txukuntzeko moduak eskaintzen dituzten Instagram gisako plataformek ia edonoren eskura jarri dute argazki itxuraz ederrak egin eta lau haizetara zabaltzeko aukera.

Hainbat argazkilari profesionalak haien lanak ikusarazteko halako tresnak erabiltzen

Argazkilari izatea bat-batean modako zerbait bihurtu da telefono berriei esker: nola eragingo dio horrek profesionali?


dituzten arren, ohikoagoa da erabiltzaile arruntak argazki errepikakorrekin topatzea: gosariak, liburuak, itsasertzak, ilunabarrak... Nola epaitzen ote dute horren erraza eta azalekoa dirudien beste argazkigintza hori, diafragma eta esposizioarekin jolastuz, argazki bakoitzarekin zerbait kontatu edo sentiarazteko ahalgina egiten duten argazkilariek?

Gaindositik argazkilaritzaren debaluaziora?

Bada dioenik horrenbeste jende argazkiak egiten eta zabaltzen has-teak lanbidea bera debalatu duela.

Uste horretakoa da 375Photo kolektiboko kide den Amaia Lekunberri. “Smartphonen

ERDIKO KAIERA • INSTAGRAM VS. OHIKO ARGAZKILARITZA



Ez ote da Instagram argazki gaindosia probokatzen ari? Ohiko praktika bihurtu da janariaren irudiak sare sozialetan partekatzea, adibidez.

zabalkundearen aurretik argazkilariaren lanak bazuen halako meritu bat, eta lanbidea gehixeago errespetatzeaz gain, honen fruitua ere gehiago baloratzen zen. Egun, denok argazkilariak izan gaitezkeelako sentipen horrek lanbidea bera eta honen fruitua zerbait arrunta eta baldarra bilakatu du”. Bat dator Irantzu Pastor argazkilari lesakarra ere. “Egia da argazkilari izatea bat-batean modako zerbait bihurtu dela. Kezkatzen nau, ez delako argaz-

kilaritza kontziente bat, eta jende askok ez dakielako argazkilaritza ez dela kamara bat izan eta klik egitea bakarrik”.

Kameradun mugikorren zabalkundeak argazkilaritza baino, oro har gizartean eragin duela dio Galder Izagirre argazkilari irundarrak: “Orain exhibizionista eta voyeurrak bilakatu gara denak”. Bostok Photo agentzia kooperatibako Gari Garaialde fotokazetariak ere ez deritzo edonork argazkiak atera eta

zabaltzeko aukera izateak argazkilaritza debalatu duenik, ondo egindakoak ondo eta gaizki egindakoak gaizki egoten jarraitzen baitu. “Nik uste edonor dela argazkilari izateko gai, idazle, mediku, pilotu eta baita lehendakari ere. Beste kontu bat da ea gero lortuko duen izan nahi duen hori izatea, eta batez ere, ondo egitea”. Ekoizpen masibo horrekin lotzen duen arazoa argazki gairak da. Instagramek, esaterako, 300 miloi erabiltzaile baino gehiago ditu egun.

“Atsegin dut”-aren bila

Batik bat kontzertuetako argazkilari gisa aritzen den Saioa Cabañasen iritziz, “Atsegin dut” botoiaren bueltan sortzen den jolasa da edonor argazkilari izan daitekeela pentsatzera eraman dezakeena. “Oso erraza da botoiari ematea, baina zaila da jakiten atzean dagoen motiboa laguntasun hutsa edo bestelako interesen bat ez ote den”. Dioenez, argazkiak norberaren harreman-saretik kanpoko jendearenean iritsi eta gustatzen bazaizkio, beste kontu bat da; orduan bai izan daiteke onak diren seinale.

Besteen onarpena lortzea da Instagram darabilten gehienek helburua Amaia Lekunberriren ustez, eta hori nekagarria egiten zaio. “Erabiltzaileen artean argazkilari onak badauden arren, gehienek funts nagusia haien bizitzak magnifikatu eta goa elikatzea da”.

Uste berekoa da Irantzu Pastor ere: “Instagram nartzisismo eta egoismoarentzat sehaska bikaina da”. Oro har, sare sozialei eta argazkilaritzari eragiten dien fenomeno delako dio. “Gero eta jende gehiagok errealitatean ez duen bizimodua irudikatzen erabiltzen ditu sare sozialak. Horretarako bizi da, argazkia egin eta jendearekin hau edo hori dela erakusteko. Horrek ez du zerikusirik argazkigintzarekin”.

Filtroek ez dute talentua ordezkutzen

Zeresana ematen duen beste kontu bat mugikorrek aplikazioen bidez argazkiak moldatu eta txukuntzeko erraztasuna da. Filtro edo iragazkiak dira modurik errazena: argazkiari aurretik zehaztutako kontrastea, saturazioa eta bestelako ezaugarri jakin batzuk emateko erabiltzen dira. Irantzu Pastor eszeptikoa da halako baliabideekiko. “Filtroek ez dute argazki hutsala istorioz betetzen, gehienek ere kolore bitxia ematen diote. Mimos egindako proiektuek eta argazkiek berezko indarra dute eta hori ezin daiteke filtroekin sortu”.

Baina Instagram argazkigintza plataforma ote da? Plataforma horretan jartzen ditugun irudiak goa elikatzen aitzakia direla uste duenik ere bada

Filtroak bai ala ez? Argazkilari batzuen ustez baliabide horiek ez dute argazkia istorioz betetzen; Photoshop bezainbeste balio dutela diote besteek

Saioa Cabañasek ordea, filtro aproposa aukeratzeak bere balioa duela aitortzen du, Instagram eta halakoetan ere saturazio, kontraste eta abarrak mimos zaindu daitezkeela argazkiei norberaren ukitu pertsonala emateko. “Photoshopen gisako programetan ere horrelako aukerak badaude. Zein desberdintasun dago batoren eta bestearen artean?”

Argazki hori nirea da

Eta egile eskubideak zer? Sare sozialetan argazkiak zabaltzeko argazkilari profesional askori eragiten die alde horretatik. Ohikoa da hedabide, elkarte eta enparauek argazkilarien lanak baimenik gabe eta egiletza aitortzea “ahaztuta” argitaratzea. Joseba Barrenetxearenean gertatu izan zaio halakorik. “Azalpenak eskatzean jaso ditudan erantzunak kafkiarrak izan dira. Nonbait batzuk uste dute sarean dauden argazkiak libre direla edonork eta edonola erabiltzeko”. Bere lanak Creative Commons lizentziarekin zabaltzen dituen arren, kezkatzen duen afera da. “Gure lanarekiko errespetu falta jasangaitza da. Argazkilariok ere langileak gara”.

Plataformak ere argazkilariak bertan zabaltzen dituzten edukiak nahieran erabil ditzakete, Gari Garaialdek ohartarazten duenez. “Baldintzak onartzen ditugunean, irudien erabilera eskubide guztiak modu ez eskusiboan ematen dizkiegu”. Badaude, hala ere, horri iskin egiteko har daitezkeen neurriak, hala nola, tamaina txikiko argazkiak jartzea edo blogean txertatzea, sare sozialetan esteka bakarrik zabalduz.

Argazkilari profesionalak ere smartphonea dute

Kalitate eta tamaina handiagoko tresnekin ohitutako argazkilariak ere soinean eramaten dituzte, ia denok bezala, argazki kameradun telefono mugikorrek; eta batzuek, baita lanerako erabili ere. Galder Izagirrek berak telefonoarekin egindako erreportaje sorta argitaratu du. “Azken finean, teknikoki kalitate hobea du nire mugikorrek nire lehen argazki kamera digitalak baino”. Fotokazetaritzarako ere tresna aparta dela dio, zenbat une erabakigarriren irudiak smartphonearen zabalkundearekin eskertu ahal izan direlako.

Barrenetxearen ustez, argazkigintzarekiko interesa pizten ere lagun dezake denok kamera bat eskura izateak. “Argazkigintzan garrantzitsuena ez da tramankulua, begirada baizik eta horregatik, edozein gailu izan daiteke baliagarri”. ■